

EUSKAL-ERRIA

REVISTA VASCONGADA

T.º LXV SAN SEBASTIÁN 15 DE OCTUBRE DE 1911 N.º 1042

ANTONIO ARZÁC ALBERDI JAUNA.

EUSKAL-ERRIA^{-REN} ZUZENDARIA

EUSKAL-ITZ-JOSTALDIEN BATZARREKO GOARPELARIA

NEURTITZ-LARI BERDIN GABIA

ILL ZAN 1904^{-KO} URRILLAREN 11^{-AN}

R. I. P.

GURETZAT etzan il. Bizi da oraindik.

Bere erraño atsegiña, arkitzen degu orain ere gure artian.


Maisu, eta maisu ondo maitia, izan zan guretzat; eta iduritzen zaigu oraindik ere, entzuten ditugula bere erakuspen gogoangarriak.

EUSKAL-ERRIA-ri, Manterola-k eman zion bizia, Arzác-ek sendotu eta indartu zuen.

Ez ziran asko egun ayetan, euskeraren alde lan egiteko zaleak; ondo bakardadean utziya zekaten gure izkuntza zoragarriya; baña Arzác zanak, bakarrik edo lagun ikin, zan bezela zala, ez zuben utzi egun bat ere, eriyotza-ko orduba arte, euskeraren alde bere kemen guziyak lan egin gabe, eta lan ontan zebillela eman zuben bere azken asnasa.

Ez zan ordia EUSKAL-ERRIA- n bikarrik agertzen, bere euskal zale-tazun bizi, pizkor eta sutsua.

Bera zan «Euskal-itiz-jostaldien Batzarra-ri» indarra ematen ziona, gazteak eta zarrak biltzen zituen batzarraren inguruan; bere biyotz maigarria, euskeraren aldeko chinparta biyotz danetan pistutzen zubena.



ANTONIO ARZÁC ALBERDI JAUNA

¿Nola ez sutu euskeraren aldeko maitasun bizizian, entzunik Arzac zanak antolatzen zituen neurtitz berdin gabiak.

Arzac-en biyotz sutua bere neurtitzetan arkitzen zan.

Ez ditugu errez astuko *bertzo sortak* deitzen zituben moldaera zorgarriak. Makiñabat aldiz entzun genizkan berari Santo Tomas gabeko jai aldietan, ez mingañakin, baizik biyotzakin irakurtzen, berdin gabeko neurtitz samur, estitsu, gain gañeko ayek.

Irakurgayak ere moldizkiratu zituben, ondo maitagarriak. Ez luke izan bear euskaldunen izenekorik «Maricho» eta «Josecho», irakurri gabekorik. Ain guchi «Zerura» eta «Sufritzen» esagutzen ez dubenik.

Irakurgai oyek irakurtzen ditugunian, iduritzen zaigu Arzac berarekin izketan ari gerala. Irakurgai oyetan Arzac bera, bere biyotz naigarrarekin baitago.

Orain gogoratzen zaigu, gure adiskide atsegin, Juan Carlos Guerra jaunak, ziona Arzac gatik:

«Biotz gaitzik gabu	}	aitortu zun benetan
gasorik SUFRITZEN		kristau sinismena.....
bere asmo guiak		¡Jauna, eman bezaio
ZERURA biurtzen,		betiko atsedena!»

Ala zan benetan; ludian bizitzeko biyotz aundichoa zuben eta zerurontz biurtzen zituben begiyak. Gizon aundia zan, baña biyotza aundiagoa oraindik.

Bere eriyotza, berak aitortu zigun nondik eta nola zetorkion :

Arkiturik gizon bat	}	bolada batian;
biyotzeko miñez,		batid ¡ai! arrea miña
sendagiñak agindu		dago maitazian
diyote, griñ onez,		maitatzen ez dakiyen
lanik ez egiteko		lur onen gañian.

Urte muga ontan berrituko degu il zanian esan genduen a :

Euskerentzako bizitu zifian
Euskera gatik ill zera
.
euskaldun bakar bat, dan artian
zutaz astuko ez gera.

Ez gera astuko ez, eta biyotz biyotzetik egingo degu otoitz, bere arima naitazunez betetako arren alde.

EUSKAL-ERRIA